







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %5,2 egin zuen gora irailan, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %9 igo zen eta zerbitzu arloan %0,5.

Hirugarren hiru hilera arteko izandako kontsumo metatuak %3,1 egin zuen gora; etxeko sektorean %4,1 igo zen eta industrian %0,4; zementu eta karea sektoreetan %8,1 igo zen, baita itsas eraikuntza eta konponketa (%37,6) eta kautxuaren eratorriak (%1,4) ere gora egin zuten. Behera egin zutenak, ordea, beiragintza (%4,4), papera (%2,5) eta kimika sektorea (%1) izan ziren.

Gas naturala







Irailan, gas naturalaren guztizko kontsumoak %18,5 egin zuen behera, 2014ko irailan izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %57,7 jaitsi zen eta gainerako sektoreena, aldiz, %1,3 igo zen. Iraila arteko izandako kontsumo metatuak %2 egin du gora, aurreko epealdiaren aldean, (-%14,3 CCTT-n eta +%6,6 gainerako sektoreetan).

Erregaiak garraioan

Abuztuan, garraioan erregaien kontsumoa %5,3 igo zen, 2014. urteko hil berean izandakoarekin konparatuta. Gasolinarenak ez zuen aldaketarik izan eta A gasolioarenak, berriz, %6,1 egin zuen gora. Abuztu arteko kontsumo metatua %3,2 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinaren kontsumoak %1 egin zuen behera eta A gasolioarenak, ordea, %3,7 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera








EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan
 Irailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 94,8 milioi kupel izan zen (2014ko irailean izandakoaren aldean, %1,4 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %0,9 egin zuen gora kontsumoak, 14,2 Mbpd kantitatera iritsiz; Txinan %3 egin zuen gora, eta 11,5 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %0,4 igo zen, eta 19,3 Mbpd kopuruan kokatu zen. Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,4 igo da, oro har; zehazki, Txinan %3, AEBetan %1,7 eta Europar Batasunean %0,6.

Energiaren kontsumoa Espainian
 Espainian, gas naturalaren kontsumoak %4,2 egin zuen behera irailean, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Irailean bitartean izandako kontsumo metatuak %5,2 egin zuen gora. Elektrizitatearen kontsumoari dagokionez, behera egin zuen irailean, %3,4, 2014ko irailean izandakoaren aldean. Irailean bitartean izandako kontsumo metatuak %3,2 egin zuen gora. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %4,4 egin zuen gora abuztuan, 2014ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %0,5 igo zen eta gasolioena %5,4. Abuztura bitarteko kontsumo metatuak %3,9 egin zuen gora, aurreko epealdiaren aldean, (%0,9 jaitsi zen gasolinena eta %4,6 igo zen gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %1,4 egin zuen gora abuztuan; abuztura bitarteko kontsumo metatua %4 igo zen, aurreko epealdiarekin erkatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta ElAren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Petrolioaren prezioa

Brent petroliu upelaren batez besteko prezioa 47,2 \$ (42 €) izan zen iraillean. Urte mugikorren batez besteko prezioak %43,6 egin zuen behera (%34,1 eurotan).

Elektrizitatearen prezioa

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 51,9 €/MWh izan zen ekainean; duela urtebetekoaren aldean, %11,9 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 20,6 €/MWh izan zen abuztuan, eta %1,9 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Iraillean, EGIX-en prezioa 18,8 €/MWh izan zen (2014ko iraillean izandakoarekin alderatuta, %22,4 jaitsi zen). Spot merkatuetan, iraillean, Henry Hub-en prezioa 8,05 €/MWh izatera iritsi zen eta Japonian 23,4 €/MWh (2014ko iraillean izandakoaren aldean, %22 egin zuten behera).

Erregaien prezioa

EAEn, abuztuan, gasolioaren prezioa 1,07 €/l izan zen (urtebetean %17,8 jaitsi da), eta gasolinarena 1,21 €/l (urtebetean %12,5 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 8 €/t izan zen iraillean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %32,9 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, Japoniako Industria Ministerioa eta BAFaren datuetan oinarrituta.